

Hiru eleko eredia Valentzian ere bai

VALENTZIAKO HEZKUNTZA SAILAK dekretu berria proposatu du: irakaskuntzan hiru eleko eredia ezartzea, alegia, valentziera, gaztelania eta ingelesa maila berean jartzea. Valentzieraren aldeko gizarte eragile, sindikatu eta oposizioko alderdiak dekretuaren aurka agertu dira, bada-kitelako dekretua indarrean jartzen bada, valentziera kaltetu baino ez duela egingo.

Gaur egun lau hizkuntz eredu daude Valentziako eskoletan. Lehenengoak irakaskuntza valentzieraz eskaintzen du. Bigarrena murgiltze

eredua da, hau da, valentziera hitzuneke eremuetan dauden gaztelania hitzuntentzat. Haurrak gaztelaniaz hasten dira eta valentzierara pasatzen dira. Hirugarrenaren bidez valentziera poliki-poliki jasotzen dute hurrek. Horrela behar lukeela dio ereduak, gero ez da hala gertatzen. Laugarren ereduaren dena gaztelaniaz egiten da, valentziera ikasgaia ezik.

Egitura horren helburua zen hurrek bi hizkuntzetan gaitasuna lortzea, baina gurean bezala, halako ereduak ez da elebitasunik lortzen. Valentzieraren aldeko eragileek lehenengo ereduaren alde egiten dute, hizkuntza ikastea

bermatuko bada. Kontua da, gaur egun, 100 haurretik 25ek baino ezin duela eredu hori aukeratu, eskoletan eskaintza gehiagorik ez dagoelako. Beste era batera esatearren, 90.000 haur dira lehenengo ereduaren ikasi nahi dutenak, eta aukerarik ez daukatenez hirugarren ereduaren ari dira.

Hemen bezala han ere, ingelesa karamelu goxoa izan daiteke gurasoentzat, baina valentziera irakaskuntzako hizkuntza ardatz ez bada etorkizuna ez da xamurra.

BAHEA

Joseba Kamiok *neure (b)egitik* blogean esanak: “Marketinaren justifikazio ideologiko txoroak alde batera utzita, iruditzen zait herri mugimenduek goitik behera ezagutu beharko lituzketela marketinaren eskutik datozen ikuspegi eta estrategia operatiboaren nondik norakoak. Hori horrela balitz aukera minimo bat izango lukete ulertzeko nondik datozkien erasoak, non-nola zulatu daitezke eta non-nola eraiki daitezke gure kausarako estrategia emankorrak. Ez da hau gure errealitatea, zoritxarrez, eta aurreiritzi ideologikoen ukatu egiten digute gertatzen zaiguna ulertzeko aukera. Izan ere, herri mugimenduek pairatzen dituzten erasoak marketinean eta komunikazioan aditu direnen aholkupean antolatzen dira. Une honetan, herri mugimenduen ohiko tresna analitikoak ez dira gai gertatzen zaigunaz argirik emateko”.

Nila Vigilek bere blogean esanak: “Keiko Fujimori hautagaiak [Peruko presidente izateko hautagaia zen] presidentziarako eztabaidan ketxua erabili izana estrategia baldarra baino ez da izan, kultura eta hizkuntza aniztasunaren aldeko ganorazko politikarik eza ezkutatzeke. Isilpean utzi nahi izan du bestalde, berak aldarrikatzen duen aitaren gobernuak ketxua hiztunak bortizki diskriminatu izana”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Nazioaren eta gizartearen kontrako eraso berria

Espainiako Gobernuak inposatutako lan, pentsio eta negoziazio kolektiboaren erreformak –azkeneko hau Espainiako Legebiltzarrean tramitatzeko zain–, antisozialak eta antinazionalak dira euskal herritarrentzat. Negoziazio kolektiboaren erreforma, CCOO, UGT eta Espainiako patronalaren arteko hausturaren ondoren ezarri zen joan den astean, eta langileen kontrako eraso berria izan da, lan malgutasun eta prekaritate gehiago ekarriko baitu, eta patronalaren interesei onura ugari. Horrez gain, Lan Harremanetarako Euskal Markoaren kontrako eraso eta bortxaketa ere izan da. Hau da, Erabakitze Euskal Esparruaren kontrako eraso eta bortxaketa. Ondorioz, gure langileek eta sindikatuak euren lan baldintzak nola eta non negoziatu erabakitze eskubidearen kontrako eraso da.

Euskal sindikalgiak abertzalea Madrilen manifestatu zen –Kanarietako, Kataluniako eta Galiziakoarekin batera–, negoziazio kolektiboaren erabakitzeko esparrua errespetatu dadin exigitzeko. Orduan salatu zuten orain gertatu dena. Horrela, inposatutako negoziazio kolektiboaren erreformak, CCOO eta UGTren ordezkaritzaren monopolioari mesede egin dio. Patronala eta administrazioa sindikalgiak burokratiko eta paktu zalez aprobetxatuko dira, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko beste herri batzuetako sindikalgiak errebindikatzaile eta mobilizatzaileari izkin eginez. Modu berean, erreforma horrek, goitik beherako egitura burokratiko sortu du, eta Euskal Herrian gehiengo den sindikalgiak abertzaleari, galarazi dio kolektiboki negoziatzea bere herrian.

Erreforma hori Espainiako Legebiltzarretik igaro behar da orain. Erabakitze Euskal Esparrua defendatzen dutela diotenek aukera ezin hobea dute defentsa hori praktikan jartzeko, euskal langile klasearen bizi-kalitateari eragingo dion negoziazio kolektiboaren erreformaren kontra azalduz.

Juan Mari Arregi